

EGINBIDEA, nik, behean sinatzen dudan Idazkari honek emana, maiatzaren 28ko 432/2020 zk. duen Alkatetza Ebazpena bidez agiri hau, 1etik 12raino (biak barne) zenbakituriko eta idatzirik edo grafiaturik dauden 12 orriz osatua, onetsi zela jasota geratzeko.
Zizur Nagusia, 2020ko maiatzaren 28(e)an.

DILIGENCIA extendida por mí la infraescrita Secretaria, para hacer constar que el presente documento conformado por 12 páginas escritas o grafiadas y numeradas del 1 al 12, ambas inclusive, fue aprobado por Resolución de Alcaldía nº 432/2020 de 28 de mayo.
Zizur Mayor, a 28 de mayo de 2020.

Idazkaria-La Secretaria

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA, NORGEHIAGOKA-ARUBIDEAN, KIROL ESKOLAK ANTOLATZEN DITUZTEN ZIZUR NAGUSIKO KIROL KLUB HITZARTUENTZAKO 2020RAKO EKITALDIETARAKO

Deialdi hau Zizur Nagusiko Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren arabera onartzen da. Ordenantza hori hasieran onartu zen, udal honen osoko bilkurak 2017ko ekainaren 29an hartutako erabakiaren bidez. Erabaki hori behin betikoa bihurtu zen, jendaurreko informazio-aldian ez baitzen erreklamaziorik aurkeztu. Ordenantza hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 198. zenbakian, 2017ko urriaren 13an.

1. Administrazio deitzailea: ZIZUR NAGUSIKO UDALA.
2. Organo emailea: Alkatetza.
3. Arlo kudeatzailea: Kirol Zerbitzua.
4. Instrukzioa: Kirol teknikaria.
5. Prozedura: Norgehiagoka araubidean.

1.- Deialdiaren xedea:

Deialdiaren xedea da Zizur Nagusiko klubei diru-laguntzak emateko araubidea ezartzea, ezarritako baldintzak betetzen dituzten Zizur Nagusiko kirol-ekitaldiak eta -ikuskitunak antola ditzaten 2020an.

2.- Helburua:


Aurreko oinarrian aipatzen diren diru-laguntzak Zizur Nagusian kirol-ekitaldiak eta -ikuskitunak antolatzeak eragindako gastuak zati batean ordaintzeko baino ez dira erabiliko, eta gastu horiek zuzenean diru-laguntzaren xede den jardueraren antolamenduari egotzi ahal izango zaizkio. Diru-laguntzak ezin izango dira inola ere aplikatu material inbentariagarria erosteko.

3.- Aurrekontu-kredituak, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa eta banakako zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, deialdi honen 7. oinarrian adierazitako baremoa eta aplikazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

2020. urtean ekitaldietarako bideratutako zenbatekoa 8.350 €-koa da.

Diru-laguntza emateko ebazpenean, aurkeztutako proiektu bakoitzari dagokion guztizko zenbatekoa zehaztuko da.



4.- Pertsona edo erakunde onuradun izateko baldintzak:

Diru-laguntza emateko oinarri den egoeran dauden kirol-klubak izan ahalko dira erakunde onuradun, baldin eta jarraian aurreikusten diren inguruabarrak betetzen badira, eta, betiere, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan ezarritako debeku-kausaren batean sartuta ez badaude.

Laguntzak eskatzen dituzten kirol-klubek baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Ardoi Udal Kirol Patronatuarekin hitzarmen bidez hitzartutako klubak izatea eta hitzarmena osorik bete izana diru-laguntza eskatzen den denboraldian.
2. Klubek beren gain hartu, kudeatu eta zuzenean antolatu beharko dituzte eskatutako diru-laguntzaren xede diren kirol-ekitaldiak eta -ikuskitzak.
3. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira beste deialdi espezifikokoago batzuen xede diren edo horietan sartzen diren kirol-ekitaldiak eta -ikuskitzak.

5.- Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak:

Honako hauek dira erakunde onuradunen betebeharrak:

1. Diru-laguntzen onuradunek ematen diren helburuetarako erabili beharko dituzte, eta haien aplikazioa agiri bidez justifikatu beharko dute; halaber, Kirol Zerbitzuak eskatutako egiaztapenak onartu eta erraztu beharko dituzte.
2. Erakunde eskatzaileak behartuta daude jasotako diru-laguntzaren kobrantza beren kontabilitatean edo erregistro-liburuetan erregistratzera, eta diru-sarreraren jatorria eta inbertsioa edo gastuen xedea zehaztu beharko dituzte.
3. Entitate juridikoak izatea diru-laguntza baten onuradunentzat nahitaezkoa da Nafarroako Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
4. Era berean, diruz lagundutako jardueraren publizitatean eta zabalkundeetan, onuradunak behartuta egongo dira Kirol Patronatuaren marka (anagramaz eta logotipoz osatua) edo unean-unean zehazten diren beste marka batzuk erabiltzera.
5. Emandako diru-laguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuek, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek edo Estatuko edo nazioarteko partikularrek emandako beste diru-laguntza batzuekin. Ildo horretan, onuradunek jakinarazi egin beharko dute diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituztela (3. eranskina).

6.- Eskabideak aurkeztea:

6.1.- Eskabideak aurkezteko lekua:

Eskabideak Zizur Nagusiko Udaleko Erregistro Orokorrean (Erreniega parkea, z/g) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan aurkeztu beharko dira.

6.2.- Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau baburpen gisa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epea luzaezina izango da. Eskabideak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

6.3.- Eskabideak eta agiriak aurkezteko modua:

Eskabideak Zizur Nagusiko Udalaren eskabidearen bidez egin beharko dira, interesdunak sinatuta edo zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz ordezkari egiaztatzen duen pertsonak sinatuta, l. eranskineko ereduaren arabera. Eskabideekin batera, deialdi honetako 6.4 atalean aipatzen diren agiriak eta informazioak aurkeztu beharko dira.

Eskabideak ez baditu betetzen deialdian ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko den ebazpenaren ondoren.

Eskatutako dokumentuak Zizur Nagusiko Udalaren edo haren erakunde autonomoen esku badaude, haien indarraldiari buruzko erantzukizunpeko adierazpen batekin ordeztu ahal izango dira, eta adierazpen horretan adieraziko da zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren, edo, hala badagokio, zein organo edo bulegotan igorri diren, edo zein erakundetan dauden. Agiri horiek ez dira, inola ere, bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntzaren eskaera aurkezteak deialdi hau arautzen duten oinarri guztiak onartzea dakar.

6.4.- Eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera:

- Jardueraren proiektua edo memoria: identifikazio-datuak eta proiektua (helburuak, baliabideak, aurrekontua, etab.). 1. Eranskina.
- Erantzukizunpeko adierazpena. 2. Eranskina.
- Helburu bererako beste erakunde batzuetan egindako diru-laguntzen eskabideen aitortpena. 3. Eranskina.

Kirol Patronatuaren esku dagoen dokumentazioa ez da berriro aurkeztu beharko.


7.- Eskabideak baloratzeko irizpide objektiboak:

Diru-laguntza honetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa honako talde hauetan banatuko da:

1.- Baremoa:

1) Gizartean duen eragina (10 puntu).

- Argitalpen-kopurua: puntu bat urte bakoitzeko, 10 puntu gehienez.



- 2) Lehiaketa-maila (20 puntu).
 - Herrikoia: 15 puntu federatu gabeko pertsoneri irekita egotea.
 - Federatuak: 5 puntu.
- 3) Parte-hartzea (25 puntu).
 - 100 parte-hartzaile baino gehiago: 25 puntu.
 - 50 parte-hartzaile baino gehiago: 10 puntu.
 - 25 parte-hartzaile baino gehiago: 5 puntu.
- 4) Baliabide ekonomikoak (20 puntu).
 - Aurrekontuaren% 75etik gorako kanpo-ekarpenak: 20 puntu.
 - Aurrekontuaren% 50etik gorako kanpo-ekarpenak: 10 puntu.
- 5) Kirol Patronatuarentzako interesa (25 puntu).
 - Beheragoko kategoriak (7-17 urte) izatea: 15 puntu.
 - Zizur Nagusiko merkataritza sustatzea: 5 puntu.
 - Zizur Nagusiko beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin ekitaldia egiten laguntzea: 5 puntu.

2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Puntuaren balioa lortzeko, erabilgarri dagoen diru-kopurua eskabide guztien guztizko puntuaren baturarekin zatitu behar da.

Dagokion diru-laguntza zehazteko, eskabidean guztira lortutako puntuak puntuaren balioarekin biderkatuko dira.

Ordaindutako diru-laguntza ez da inola ere izango onartutako gastu-aurrekontua baino handiagoa.

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa azkenean ordaindutako zenbatekoa baino handiagoa bada, ateratzen den kopurua gainerako onuradunen artean banatu ahal izango da, balioespen-prozesuaren ondoriozko puntuaren proportzioan.

8.- Eskabideak ebaluatzeko balorazio-batzordea:

Eskabideak ebaluatzeko balorazio-batzorde bat eratuko da, eta honako pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaria: alkatea edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekideak:

1. Kirol Patronatuko lehendakaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
2. Kiroletako teknikariak.
3. Kirol Zerbitzuko arduraduna.

Idazkaria: udal idazkaria edo hark eskuordetutako pertsona.

9.- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena:

9.1.- Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskabideen aurre-ebaluazioa egingo du, eta horren emaitza txosten batean zehaztuko da. Txosten horretan egiaztatuko da eskura duen informaziotik ondorioztatzen dela pertsona edo erakunde onuradunek izaera hori lortzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eta espedientea Balorazio Batzordeari bidaliko dio, eskabideak ebaluatu ditzan, deialdi honetan aurreikusitako balorazio-irizpide objektiboak kontuan hartuta.

Balorazio Batzordeak behin-behineko proposamen-txosten arrazoitua egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko eta klub bakoitzari dagokion behin-behineko diru-laguntza zehazteko. Behin-behineko ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoitua, instrukzio-organoak egingo du, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio.

Behin betiko ebazpena emango da diruz lagundutako jarduerak justifikatzeko 10. oinarrian jasotako dokumentazioarekin. Behin betiko ebazpen-proposamena instrukzio-organoak egingo du, espedientea aztertu ondoren eta Balorazio Batzordeak txostena egin ondoren. Ebazteko eskumena duen organoak ebazteko du erakunde onuradun bakoitzari zer diru-laguntza dagokion, eta emandako behin betiko datuen arabera doikuntzak egingo ditu.

9.2.- Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Behin-behineko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Prozedura ebazteko ezarritako gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.


Diru-laguntza emateko ebazpenak arrazoitu egin beharko dira, eta berariaz adierazi beharko da zein pertsona edo erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei eman zaien diru-laguntza, bai eta zenbatekoa ere, eta, hala badagokio, zein pertsona edo erakunde eskatzaile edo eskatzailearen eskaerak ezetsi diren.

Diru-laguntzak emateko ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta pertsona edo erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei jakinaraziko zaizkie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Emandako diru-laguntzak Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean argitaratu beharko dira, honako hauek adierazita, kasuaren arabera: deialdia, programa eta aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta diru-laguntzaren helburua.

10.- Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta behar-beharrezkoak direnak.



Deialdi honetan honako kontzeptu hauek lagunduko dira diruz:

- Publizitatea.
- Epaile epaileak eta federazioko gastuak.
- Garaikurrak eta opariak parte-hartzaileei.
- Azpiegitura- eta antolaketa-gastuak.
- Teknikarien gastuak.

11.- Diruz lagundutako jardueraren bateragarritasuna:

Udal diru-laguntza jasotzea BATERAEZINA da Zizur Nagusiko Udaleko edozein arlotatik helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin. Hartara, BATERAGARRIA izango da helburu bererako beste administrazio, erakunde edo pertsona batzuek emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu, bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua. Halakorik gertatuz gero, lortutako soberakina itzuli egin beharko da, bai eta dagokion berandutze-interesa eskatu ere.

Pertsona edo erakunde onuradunak organo emaileari jakinarazi beharko dio diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatu edo eskuratu dituela. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.

12.- Ordainketa eta justifikazioa:

12.1.- Ordainketa:

Diru-laguntza 12.2 oinarrian aurreikusitako frogagiriak aurkeztu ondoren ordainduko da.

2020ko ekitaldietarako esleitutako zenbatekoa 2020. urtearen amaieran dagokion ebazpenaren ondoren ordainduko da.


Zenbateko ekonomiko horren kobrantza erakunde bakoitzaren kontabilitatean edo erregistro-liburuan jaso beharko da, erakunde horrek nahitaez eraman behar badu.

Ezin izango da diru-laguntza ordaindu pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu edo itzulketa-ebazpen bidez zordun bada.

Aurrekoa hala ere, diru-laguntzaren izaera kontuan hartuta, Zizur Nagusiko Udalak, ofizioz, alde aurretik kitatu ahal izango ditu diru-laguntzen onuradunei kobratzeko dauden zorrak, diru-laguntza horiek edo horien zati bat zordundutako kopuruekin konpentsatuta.

12.2.- Justifikazioa:

Justifikazio-agiriak aurkezteko epea HILABETEKOA izango da, ekitaldia egiten denetik kontaktzen hasita.



Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Jatorrizko fakturak, erkatu ondoren itzuliko direnak, eta horien fotokopiak, diru-laguntza gisa jasotako zenbatekoaren berdina edo handiagoa dutenak. Jarduerari egotz dakizkiokeen faktura guztien izenen zerrenda erantsiko da, non kontabilitate-idatzoharra eta fakturen zenbatekoa eta aplikazioa agertu beharko baitira.
- Kartelak, liburuxka, prentsako informazioa edo Kirol Patronatuaren diru-laguntza egiaztatzen duen beste edozein euskarri.
- Garatutako jarduerarekin zerikusia duen beste edozein dokumentu, eskatzaileak edo Patronatuak interesgarritzat jotzen duena.

13.- Dirua itzultzeko arrazoiak:

Jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan jasotako itzulketakausaren bat gertatzen denean, bai eta atal honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

Itzultzeko arrazoi espezifikoak:


- Esku-hartzearen esparruan egin beharreko jarduerak eta emaitzak osorik edo zati batean ez betetzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez justifikatzea.
- Diru-laguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- Diru-laguntzaren helburuak ez betetzea.
- Gastuak ez badira edozein arrazoiengatik egiten edo nabarmen aldatzen badira Zizur Nagusiko Udalaren berariazko baimenik gabe.
- Diru-laguntza emateagatik finantzatutako erakundeari ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Ondasunak diru-laguntzaren xede zehatzerako erabiltzeko betebeharra ez betetzea.

14.- Errekurtsoen araubidea:

Deialdi honen, haren oinarrien eta horiek gauzatzeko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, honako errekurtsio hauek jarri ahal izango dira, nahi izanez gero:

- Berraztertze errekurtsioa administrazio-egintza egin duen udal-organismoan bertan, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Zizur Nagusian, 2020ko maiatzaren 28an.



1. ERANSKINA

**Zizur Nagusiko kirol-klub hitzartutakoei diru-laguntzak emateko deialdiaren erdua,
Zizur Nagusian kirol-ekitaldiak eta -ikuskitzak antolatzeko.**

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Jardueraren izena:

Entitatea:

Noiz eta non egin den:.....

Kirol modalitatea:

Helbidea:

Herria:

P.K.:

Teléfono:

Erregistro zk.:.....

IFZ:.....

E-maila:.....

PROIEKTUA

1. Proiektuaren helburuak/garrantzia

.....

2. Noiz eta non egin den

.....

3. Jardueraren deskribapena

.....


4. Antolamendu-baliabideak

.....

5. Aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua eta kategoriak

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
ZIZUR NAGUSIA			
NAFARROA			
BESTE ERKIDEGO			
BATZUK			
BESTE BATZUK			
GUZTIRA			

6. Aurrekontua (sarreren eta gastuen balantzea)



7. Aurreikusitako publizitate-prozedura (adierazi ekitaldien eguna eta ordua)

	LEKUA /DATA
<input type="radio"/> Liburuxka (Zk.)	
<input type="radio"/> Aurkezpena / Prensaurrekoa	
<input type="radio"/> Sari banaketa	
<input type="radio"/> Beste batzuk	

8. Beste datu interesgarri batzuk

OHARRA: proiektua deskribatzen duen beste edozein datu Eranskin gisa erantsi ahal izango da.

2. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,
jakinarazpenetarako helbidea duena
..... eta NAN zenbakia
..... Telefonoa Fax zenbakia
..... e-maila bere izenean edo beste
baten ordezkari gisa (dagokionaren arabera), helbide honekin
..... IFZ
Telefono zenbakia..... Fax zenbakia **eta jakinik
norgehiagoka-araubideko diru-laguntzen deialdi publikoa, Kirol Eskolak antolatzen dituzten Zizur
Nagusiko hitzartutako Kirol Klubentzako 2020rako ekitaldietarako.**

ADIERAZTEN DU:

- Betetzen dituela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean onuradun izateko ezarritako baldintza orokorrak eta deialdian aurreikusitako betekizun espezifikoak.
- Ez duela inolako debeku-kausarik Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako onuradun izateko.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Eskatzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa diru-laguntza emateko oinarri diren helburu eta jardueretara bideratzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ematen eta sinatzen dut hau

Zizur Nagusian, 2020ko _____ -aren _____ (e)an.

(Sinadura)

3. ERANSKINA

XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,
jakinarazpenetarako helbidea duena
eta NAN zenbakia Telefonoa Fax zenbakia
e-maila bere izenean edo beste baten ordezkari gisa
(dagokionaren arabera), helbide honekin
..... IFZ Telefono
zenbakia..... Fax zenbakia **eta jakinik norgehiagoka-
araubideko diru-laguntzen deialdi publikoa, Kirol Eskolak antolatzen dituzten Zizur Nagusiko
hitzartutako Kirol Klubentzako 2020rako ekitaldietarako.**

Eskatutako diru-laguntzari dagokionez, honako hau ADIERAZTEN DU:

- Deialdi honen helburu bererako beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu edo partikular batzuegandik inolako diru-laguntzarik eskatu edo lortu ez izana.
- Deialdi honen helburu bererako honako diru-laguntza hauek eskatu izana beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu batzuei edo partikularrei, nazionalak zein nazioartekoak izan:
- Deialdi honen helburu bererako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu edo partikular batzuetatik honako diru-laguntza hauek jaso izana:

Eskatutako diru-laguntzak: (adierazi data, erakundea, zenbatekoa)

Lortutako diru-laguntzak: (adierazi data, erakundea, zenbatekoa)

Zizur Nagusian, 2020ko _____ -aren _____ (e)an.

(Sinadura)